



TXOSNA USTIATZEKO BAIMEN ESKAERA - Maiatzeko Santikutz jaietan 2019

ESKAERA AURKEZTEN DUEN PERTSONA EDO ENTITATEA

Eskatzailearen izena eta bi abizenak		NAN	
Ordezkaria		IFK - NAN	
Ondorengoa naizen aldetik			
Kalea	Zk.	Solairua	Aldea
Posta kodea	Herria	Lurraldea	
e-posta	Telefono zk	Sakelakoaren zk	

TXOSNA JARTZEKO ARRAZOTIAK

--

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTUAK

- NANaren fotokopia
- Hala badagokio, Elkartearen IFKren fotokopia

BETE BEHARREKO ARAUAK

- a) **Eskaera egiteko epemuga:** 2019ko otsailak 28
Lekua: Legazpiko Udaleko Herritarrentzako Arreta Zerbitzua
- b) **Bermea:** 2019/04/12a baino lehen 300 €ko bermea ezarriko da.
(gainerako betebeharrak, atzealdean)

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrek ezartzen duenaren arabera, (EB) 2016/679, 2016ko apirilaren 27koa, nire baimena ematen dut ondoko datu hauek Legazpiko Udala jabetzeko fitxategian sar daitezela eta Udalak bere eskumeneko eginkizunetan erabili ditzan. Modu berean fitxategietara jotzeko, datuak zuzentzeko edo ezerezteko eta aurka egiteko eskubideen berri badudala adierazi nahi dut. Halaber, fitxategiaren arduraduna Legazpiko Udala dela adierazi didate (Euskal Herria plaza, 1. 20230 Legazpi)

Data	Sinadura
------	----------

BALDINTZA OROKORRAK

- 1.- Azken urtean Legazpin ekintzak antolatu eta egin dituzten herriko elkarte edo taldeak bakarrik eskatu dezakete txosna ustiatzea. Ez da onartuko eskaera pertsonalik, ezta alderdi politikoek egindakorik ere. **Gehienez 2 esleipendun** izango dira. 2 eskari baino gehiago egonez gero, lehentasuna izango dute iaz –**maiatzeko jaietan**– esleipendun izan ez zirenek. Bi plazak osatzen ez badira, aurkeztu direnen artean zozketa eginez esleituko dira gainerakoak.
Dena den, eskatzaileen artean adostasuna lortzen bada, aukera dago beste ustiatze-formula bat erabiltzeko.
- 2.- Udalaren kontura izango da karpa, harraska, argindarra eta ur-hornidura. Gainerako elementuak eskatzailearen kontura izango dira: barra, musika ekipoa (bakarra txosna guztirako) eta bestelakoak.
 - Karpa eliza atzealdean jarriko da, parkearen ondoan. 10x15x3 metro izango ditu, eta barruan ekitaldiak antolatzeke oholtza jarriko du Udalak.
 - Barruan antolatzen diren musika-emanaldi edo ekintzak, beranduenez, goizaldeko 03:00etarako bukatu beharko dira.
- 3.- Karpa esleipendunek erabiltzeko moduan egongo da apirilaren 29ko arratsaldeko 16:00etatik aurrera. Aldiz, maiatzaren 7ko arratsaldeko 16:00etarako dena jasota egongo da.
- 4.- Txosna apirilaren 30ean ireki daiteke, arratsaldeko 18:00etatik aurrera, eta maiatzaren 5ean itxiko da, beranduenez, arratsaldeko 21:00etan.
- 5.- **Ordutegia**
 - **Ireki:** Eguerdiko 12:00etatik aurrera.
 - **Itxi:** Goizaldeko 05:00etan. Ordu horretarako karpak erabat itxita egon beharko du. **6:00etan** argindarra kenduko da.
- 6.- Edalontziak, platerak edo bestelako ontziak berrerabilgarriak izango dira. Horretarako, Udalak herriko elkarteen eskura jarriko du bere ontziteria berrerabilgarria, hura erabiltzeko ezarritako baldintzen arabera. Ontzi horiek denak itzuli egin behar dira eta, beraz, leku agerian jarriko dira horren berri ematen duten kartelak. Kartel horiek Udalak emango ditu.
- 7.- Txosna eta ingurua garbi eta txukun mantenduko dira. **Txosnaren barruko garbiketa esleipendunak egingo du.**
- 8.- Hondakinak jasotzeko ontzi egokiak erabili beharko dira. Hondakinak ezingo dira pilatu eta ontziak betetzen direnean hustu egingo dira. Txosnaren kanpoaldean hondakinak biltzeko ontziak jarriko dira.
- 9.- Udallerrian euskararen erabilera sustatzeko Udalak onartu dituen irizpideak kontuan hartu beharko dira, beraz, euskararen erabilera lehentasunezkoa izango da ahozko zein idatzizko harremanetan. Gainera, euskarazko musika jartzea sustatuko da. Agerian jartzeko ohar, kartel eta horrelakoak euskaraz idatziko dira edo, bestela, elebitan. Hala ere, elebitan idazteketan, euskarazko testua nabarmenduko da.
- 10.- Txosna gunean ez da kartel sexistarik onartuko.
- 11.- 18 urtez beherakoei ez zaie edari alkoholduunik zerbitzatuko.
- 12.- Araudi hau betetzen ez bada, ez da fidantzarik itzuliko eta ezingo da beste esleipen batean parte hartu bi urtez.



ESKAERA HAU ONDOKO HELBIDE HONETAN AURKEZ DAITEKE:

Legazpiko Udala
Euskal Herria plaza, 1
20230 – Legazpi (Gipuzkoa)
www.legazpi.eus

Aurrez aurre: Udaletxean (Euskal Herria plaza, 1. 20230 – Legazpi).

Ordutegia:

Astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara.

Posta arrunta bidez: Posta bulegoetan, posta ziurtatu irekiaren bidez.

Telematikoki: <http://egoitza.legazpi.eus/>

e-posta: haz@legazpi.eus

DATUEN BABESA

Jakinarazten dizugu ematen dituzun datu pertsonalak LEGAZPIKO UDALaren sistema informatikoen bitartez tratuko direla Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrak ezartzen duenaren arabera, (EB) 2016/679, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituena.

Udal kudeaketak bere eskumenen alorrean dituen zereginak ahalbidetzea da tratamendu horren xedea eta baita Udalak eskaintzen dituen zerbitzuak egoki ematea ere, ondoren historia, estatistika edo zientzia xedeetarako erabiliko direnaren kalterik gabe; beti ere, ezartzekoa den legegintza betez.

Edozelan ere, eskaria izenpetzean eskatzailea informatuta dagoela ulertuko da. Modu berean, esandako xedeetarako eta Legean jasotako helburuetarako bere datuak erabiltzeko oniritzia ematen duela ulertuko da.

Jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak atzitzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, tratamendua mugatzeko edo aurka egiteko eta eramangarritasuna bermatzeko dituzun eskubideak erabiltzeko idatzizko eskari bat eta NANaren fotokopia aurkeztu behar dizkiozula tratamenduaren titular eta arduradunari honako helbidean: Euskal Herria plaza 1 – 20230 Legazpi.

Erosoagoa egiten bazaizu, eskubide horiek Udalaren web orriaren bidez erabil ditzakezu helbide honetan: <http://egoitza.legazpi.eus/>

Halaber, “Datu Pertsonalen Babesaren arloko jardunbide Egokien Eskuliburua EAeko toki erakundeetarako” izeneko gidaliburua kontsulta dezakezu interneteko helbide hauetan: www.eudel.eus/eu eta www.avpd.es.